

EKONOMIA ETA FINANTZAK

AURREKO DENBORALDIAK

Egungo administrazio kontseiluak klubaren ardura hartu zuenetik, finantza egoerari dagokionean bi garai zehaztu daitezke: biziraute fasea, hartzekodun konkurtsoaren kitapen eta betebeharren harira hasitakoa eta 2013-2014 sasoiaren erakundearen ondasun garbia zenbaki negatiboetatik ateratzerakoan amaitutakoa; eta handik aurrerako egonkortasun-sendotze egoera, 2014-2015tik gaurdaino alor ekonomikoaren hazkundean oinarritu dena, bai urteroko diru sarrerei dagokionean, baita zortzi urteko emaitza positiboek metatutako ondasunean.

Arlo guztietatik ikusita ere, erakundearen zenbakiek azken urteotan zifra geroz eta handiagoak eskaini dituzte urtez urte, izan telebista eskubideengatik diru sarreretan, izan kirol arloko profesionalen soldatetan eta beste hainbatetan... salbuespen batekin: abonatuaren eta Anoetako partidatarako txartel salmenten sarreretan. Azken honetan, gizonezkoen lehen taldearen kirol egoera edonolakoa izanda ere, apurkako gainbehera joan da urtero. Egungo Anoetaren erabilera aukerak mugak jartzen baditu ere, eraberritze lanen bukaerara itxaron gabe neurriak hartzeko moduko gaia izan daiteke.

Anoetaren erreforma bera, Realaren diru-kontutik atera beharreko balizko 36 milioi euroei dagokienez, aurreko urteetan metatutako finantza albiste onak utzitako egoeraren sendotasuna frogatuko dute.

GAUR EGUNGO EGOERA ETA TESTUINGURUA

Pasa den ekainean itxitako sasoiaren kontuak aztertuta, lehengo urtean aurrekontu moduan espero ziren sarrera eta gastuekiko, emaitza errealak altuagoak izan dira. Edonola ere, sarrera nahiz gastuak proportzio beretsuan hazi izanagatik, urteko finantza emaitza 2,4 milioi eurotako irabaziena izan da, aurreikusten zena baino 350.000 inguru gehiago. Emaitza horrek, sasoi bukaerako erakundearen ondasun garbia 52 milioi eta erdiraino igoarazi du.

Urtearen nondik norakoa eta aurtengo sasoirako Kontseiluak aurreikusten duena aztertuta, berriz, honako hauek aipatu daitezke besteren artean:

- Abonu eta partidatiko txartelen sarrerak aurten ere murriztagoak izango direla aurreikusten da, iazko urteko 7 milioi eurotatik %5 jaitsiko direla uste baita, 6,6 milioi

eurotara. Erreforma dela eta egon daitezkeen oztupoak aintzat hartuta ere, Europa League jokatzeko ari garen urtean kontzeptu honengatik diru gutxiago jasotzea aurreikustea deigarria da. Kluba babesteko egun erdirik ez izateak ere zerikusia izan dezake honetan.

- Telebistako eskubideen hazkunde indartsuak aurrera darrai. Lehengo urteko 49 milioi eurotatik aurtengo 58'4 milioi euro arte, Europa Leagueko partidak ere kontuan hartuta.
- Bestelako diru sarreretan ere, txapelketetan parte hartzeagatik jasotakoetan izan ezik, %10-13ko hazkundea espero da merchandising eta publizitate-babesleetan.
- Ohiko gastuek ere gorako bidea jarraituko dutela espero da: lehen taldearen soldata eta pizgarriak lehengo sasoiaren 37 milioi eurokoak izan ziren, [LFPren kontrol ekonomikorako araudiaren irizpideak jarraituta](#). Horrek, lehen taldeak erakundearen kostuekiko suposatzen duen pisua %48an uzten du, talde gehienekin alderatuta portzentaje beretsuan. Hala eta guztiz ere, aurtengo sasoiari begira 43 milioi eurora arteko hazkundea aurreikusten da (+%16), oraindik ere [ia 65 milioi €ko balizko mugatik](#) urrun.
- Deigarria izan daiteke, halaber, aurtengo sasoiarako espero diren irabaziak 15,5 milioi eurokoak direnean, jokalarien salerosketan izandako mozkinengatik sarrera aurreikuspenak 19 milioi eurokoak izatea. Udako Yuri Berchicheren eta 2018ko urtarrileko Carlos Velaren salmentagatik sarrerak alor honetan kokatzen dira.

Anoetaren erreformara begira administrazio kontseiluak eta finantza arduradunek prestatutako neurriek arreta berezia eskatzen dute. Realak honezkero 36 milioi euro pasatxoko konpromisoa hartu du Donostiako Udala-Anoeta Kiroldegiarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, baina konpromiso hau zehatz hartuta erreforma lanak bukatu arte kostu errealak ezingo dira zehaztu. Gainera, hitzarmena zorrotz aztertuta, Realak erreformaren kostua osatzeko ordainketa konpromisoa sinatua du, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren aportaziotik azken kopurura arte. Beraz, Realak izango da ordainketa horien erantzule, baldin eta erreformaren kostuetan aurreikusitako kopuruak gaindituko balira.

Finantza egituran, aurtengo ekainaren 30eko kontuak aztertuta eta datozkion ordainketei aurre egiteko, klubak honakoak prestatu ditu:

- 10 milioi euro diru xehean kontu korrontean.
- 15 milioi euro arteko kreditu-lerroak irekita eta erabili gabe Rural Kutxa, Caixabank eta Sabadell finantza erakundeekin, epemuga ezberdinekin.
- Kutxabankekin 2016ko udazkenean berritutako hitzarmenak ere alor honetan finantza erakundearen parte hartzea bermatzen duela argitaratu zuten bi erakundeek.

Realak erreformarekiko egin beharreko ordainketen egutegia ezagutu gabe ere, arrazoizkoa dirudi lanak aurrera joan eta osatu ahala gauzatuko direla. Oinarri hori aintzat hartuta, aurtengo urterako beharrezko liratezkeen kopuruak bere gain hartzeko arazo handiegirik ez dela izango aurreratu daiteke.

Erreformak eta erreformaren inguruko erabakiek, edonola ere, Realaren etorkizun ekonomikoan berebiziko garrantzia izango dute. Kontseiluak berak lehengo sasoiari buruzko kudeaketa txostenean azaltzen duen moduan, gaur egungo eliteko klub baten sarreretan iturri sendoena den telebista eskubideengatik diruak eta erreformak erlazio zuzena dute:

- Zaleengandik jasotako diru sarreren hazkundea, Kontseiluaren arabera, zelaiaren erreformak ahalbidetuko du.

- Telebista eskubideen balizko burbuila aintzat hartu gabe, gaur egungo diru banaketaren kalkuluan erdia kirol arloko emaitzek eta klubaren inguruko ezarpen sozialak finkatzen dute.
- Zelaiko partidetakako esperientziak, kirol arloko errendimenduak, abonua eta txartelen prezioak eta abarrek elkar eragin nabaria dute, eta guzti hauen arrakastan erreforma pizgarri garrantzitsua izan daiteke aukera ondo aprobetxatzen bada.

Kirol arloa inondik ere gutxietsi gabe ere, hurrengo hamarkadei begira Realaren etorkizun ekonomiko eta finantzarioa Anoetako erreforma operazioa eta honen inguruko zaletuaren interesaren berreskuratzea giltzarri izango dira beraz. Lehen Mailara itzuli osteko gainbehera soziala konstantea izaten ari den momentuan, ez da erronka makala.